

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETATURISMOAREN SAILA

Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien arloko Gasteizko txikizkako merkataritza-enpresentzako aparteko laguntzak. 2021. urtea

SARS-CoV-2aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek eragindako ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien arloko Gasteizko txikizkako merkataritza-enpresentzako aparteko laguntzen deialdi publikoa eta berariazko oinarriak.

2020ko abenduaren 11an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30ko ALHAOn — 148. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2021eko martxoaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak SARS-CoV-2aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek eragindako ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien arloko Gasteizko txikizkako merkataritza-enpresentzako aparteko laguntzen deialdi publikoa eta berariazko oinarriak.

Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezen:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

SARS-CoV-2aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek eragindako ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien arloko Gasteizko txikizkako merkataritza-enpresentzako aparteko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Hauxe da oinarri hauen xedea: Gasteizko udalerriko pertsonen ekipamenduaren azpisektoreari laguntzea eta babes ekonomikoa ematea, edukierari, ordutegiari eta, oro har, jarduera sozio-ekonomikoari dagokionez hartutako neurriek eragin diela ikusi duten pertsonaren ekipamenduaren sektoreko enpresei zuzendutako aparteko laguntzak emateko —elkarren arteko lehia baliatuz— baldintzak arautuz.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomiko horiek.

3. oinarria. Enpresa eta pertsona onuradunen betebeharrak

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

1. Merkataritza-jarduera Gasteizko udalerrian kokatutako —menpeko toki erakundeak barne— lokal batean gauzatzea. Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona

edo entitateek helbidea Gasteizko udalerrian edukitzea. Lur-arrasean kokatuta egon beharko du lokalak, erakusleioa eduki, eta jendearentzat irekita egon.

Azoketako nahiz merkataritza-zentro edo -galerietako establezimenduak ere aintzat hartu ahal izango dira.

2. Enpresa txikia izateko bete beharreko betekizunak betetzea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunean —(50 soldatapeko baino gutxiago, eta 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra, urtean—.

3. Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresei lotuak ez egotea, eta halakoek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez edukitzea bertan.

4. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetakoren bateko jarduera egin eta bertan alta emanda egotea:

– 651.2: Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza.

– 651.3: Lentzeriaren eta kortseteriaren txikizkako merkataritza.

– 651.4: Mertzeria-gaien txikizkako merkataritza.

– 651.5: Jantzi berezien txikizkako merkataritza.

– 651.6: Zapaten, larruzko produktuen eta imitaziozkoen, gerrikoen, diru-zorroen, poltsen, maleten eta, oro har, bidaiatzeko gauzen txikizkako merkataritza.

– 651.7: Larrukigintzako jantzien txikizkako merkataritza.

Betebehar hori ofizioz egiaztatuko du Gasteizko Udalak.

5. Aurreko puntuan adierazitako EJZren epigrafeetan alta emanda egon beharko dute enpresek deialdi hau ALHAOn argitaratzen den eguna baino lehen, eta beren jarduerari eutsi, gutxienez lau hilabetez, deialdiaren ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik.

Betebehar hori ofizioz egiaztatu ahal izango du Gasteizko Udalak.

6. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitatzeko prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

7. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkartek, lanbide elkargoak eta abar).

8. Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukuratik apartatua ez egotea, ezta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan 2. eta 3. ataletan aurreikusitako gainerako zirkunstantzietako batean ere, hots, dirulaguntzen onuradun izatea galarazten duen zirkunstantziaren batean.

4. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura

2021eko ekitaldiko udal aurrekontuetako 2021/08 22 4314.4.8964 “Denda txikientzako laguntzak” partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak. 300.000,00 eurokoa da partida horren zuzkidura.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkararen erabakia dela medio zuzkidura hori handitzerik izango da —Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 58. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik—, baldin eta udal sail horrek enpresei zuzendurik egiten dituen deialdietakoren batean soberako krediturik badago. Nolanahi ere, laguntza-deialdia ebatzi aurretik egin beharko da, eta —aldez aurretik— deialdia argitaratu zen hedabideetan argitaratuz.

5. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamuneko 08:30etik.

Enpresak eskabide bakar bat egin beharko du, jarduera gauzatzen duen lokalen kopurua edozein delarik ere. Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

6. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailari dagokio oinarri hauetan arautzen diren laguntzak kudeatzea. Hautatze- eta jarraipen-batzorde bat eratu da horretarako, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendariak, Enpresen Zerbitzuko buruak eta Merkataritza Zerbitzuko buruak osatua, zein arduratuko baita aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeaz, Merkataritza Zerbitzuko teknikariek txostena egin ondoren.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa, eta, hortaz, alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, deialdian ezarritako irizpideei jarraituz.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak, hautatze- eta jarraipen-batzordeak proposamena aurkeztu ondoren.

7. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea

Gehienez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen dene-tik. Epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

ALHAOren eta Gasteizko Udalaren iragarki taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta ho-rron kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze-errekurtsoa, erabakia hartu duen orga-noari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaite-gian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

8. oinarria. Balioespen-irizpideak

Irizpide hauek hartuko dira aintzat aurkeztutako eskabideak balioesteko:

1. Enpresaren tamaina: gehienez 5 puntu

— 0,50 puntu enpresak duen soldatapeko bakoitzeko —oinarri hauen ondorioetarako, beste-ren kontura diharduen langile bakoitza izango da soldatapekoa, lanaldiaren ehunekoa edozein delarik ere—.

Enpresak laguntza-eskabidearekin batera aurkezten duen dokumentazioaren arabera balioetsiko da irizpide hori.

2. Merkataritza-lokalaren erregimena: gehienez 5 puntu

– 5 puntu, diruz lagundu daitekeen jarduera indarrean dagoen hipoteka-maileguaren mendeko alokairu-erregimeneko edo jabetzako lokal batean egiten dutela justifikatzen duten enpresak, 3. oinarriko baldintzak betetzen dituztelarik.

Enpresak laguntza-eskabidearekin batera aurkezten duen dokumentazioaren arabera balioetsiko da irizpide hori.

3. Enpresaren antzinasuna EJZan: gehienez 3 puntu

– 3 puntu, 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik EJZan alta emanda dauden enpresak, gaur egun dena delako lokalean beren jarduerari eusten diotelarik.

– 1 puntu, 2019ko urtarrilaren 1etik eta deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunera arte EJZan alta emanda dauden enpresak, gaur egun dena delako lokalean beren jarduerari eusten diotelarik.

Irizpide hori ofizios egiaztatuko du Gasteizko Udalak.

9. oinarria. Eskabideak balioestea eta dirulaguntza kalkulatzea

8. oinarrian ezarritako irizpideen arabera baloratuko dira diruz lagundu daitezkeen eskabideak, eta lortutako balorazioaren arabera ordenatuko.

750,00 euroko dirulaguntza emango da enpresa eskatzaileak diruz lagundu daitekeen jarduera ekonomikoa egiten duen lokal bakoitzeko. Ematen den dirulaguntzak ezingo du izan, inolaz ere, 3.000,00 eurotik gorakoa, enpresa onuradun bakoitzeko.

Ofizios egiaztatuko da enpresak diruz lagundu daitekeen jarduera —3. oinarrian adierazitakoa— gauzatzen duen lokalen kopurua.

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundu daitekeen merkataritza-jarduera gauzatzen den negozio-unitate independentea joko da lokaltzat.

Guztira lortutako puntuazioaren arabera ezartzen den hurrenkera horri jarraiki emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte. Berdinketa egokitu gero, eta puntuazio bera duten eskabide guztiei erantzuteko aski aurrekontu-krediturik ez badago, enpresa eskatzaileak bere jardueran duen antzinasuna hartuko da aintzat bata edo bestea lehenesteko —Ekonomia-jardueren gaineko Zergako alta-data—. Enpresa batek bere jarduera lokal batean baino gehiagotan garatzen badu, antzinasun handiena duen lokalarena joko da Ekonomia-jardueren gaineko Zergako alta-datatzat. Baldin eta geratzen den saldoa ez bada aski baliagarri dagoen kreditua agortzen duen dirulaguntza ordaintzeko, geratzen den kreditua ordainduko zaio horri.

10. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, deialdia ebatzi ondoren. Guztia ere, gerora egin litezkeen ikuskatze- eta egiaztapen-jarduerak gorabehera.

Dirulaguntza onartutzat joko da baldin ematen deneko ebazpena argitaratzen denetik hamar eguneko epea igarotzen delarik berariaz uko egin ez bazaio.

11. oinarria. Dirulaguntza justifikatzea

Oinarri hauetan galdatzen den dokumentazio guztia aurkezten delarik joko da justifikatutzat dirulaguntza, eta xedea betetzen dela, eta, horrenbestez, dirulaguntza ematea ebazten delarik, hura onuradunari ordaintzeko tramitazioa egingo da. Edonola ere, prozedura horren organo instrukzio-egileak onuradunei eskatzen dizkien egiaztagiria oro dirulaguntza eskatzen duen enpresak ematen duen helbide elektronikoaren bitartez igorri beharko dira.

12. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzaitza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

2. Dirulaguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Udalari jakinaraztea.

3. Laguntza-eskabidea ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta agiri osagarri oro Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Sailaren eskura jartzea.

4. Jarduerari lau hilabetez eustea, deialdi honen ebazpena ALHAOn argitaratzen den egu-netik kontatuta.

5. Dirulaguntza justifikatzea, 11. oinarrian adierazten den moduan.

13. oinarria. Bestelako laguntza eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna

Dirulaguntza bateragarri izango da helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabideekin.

14. oinarria. Aurkeztu beharreko agiriak

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntza-eskabideei, nahitaez:

– Eskabidea eta erantzukizunpeko adierazpena: I. eranskina, behar bezala beteta, eta horretarako ahalmena duen pertsonak sinatuta.

Horrez gain, enpresa eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu ahal izango dute, eskabidea baloratzeari dagozkionetarako:

– Enpresaren tamaina baloratzeko dokumentazioa: Azken hilabeteko TC2 edo langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia

– Merkataritza-lokalaren edukitze-erregimena baloratzeko dokumentazioa:

• Jarduera errentan hartutako lokal batean egiten bada: indarrean dagoen alokairu-kontratu, non laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa errentatzaile gisa ageri beharko baita.

• Jarduera hipotekaren mendeko jabetzako lokal batean egiten bada: merkataritza-lokalaren hipoteka-mailegua formalizatzeko agiria, non laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa hipotekatu gisa ageri beharko baita, edo hipoteka-mailegua merkataritza-lokalaren laguntza eskatu duen pertsona fisiko edo juridikoaren izenean dagoela egiaztatzen duen banku-agiria.

Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez, ofizioz begiratuko da enpresa eskatzailea egunean dagoen, baita Ekonomia Jardueren gaineko Zergan zein egoeratan dagoen ere.

Eskabidea aurkezteak Gasteizko Udalari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko ziurtagiriak zuzenean eskatzeko baimena ematea dakar berekin (I. eranskina). Hala ere, enpresa eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango du baimen hori. Horrela bada, Arabako Foru Aldundiarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak ordainduak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du, eskabidearekin batera.

Enpresa eskatzaileak ez badu esleitu Gizarte Segurantzaren sistemako inongo erregimeneko kotizazio-konturik, bertako bazkide guztiek egon beharko dute egunean Gizarte Segurantzaren.

15. oinarria. Akatsak zuzentzea

Dirulaguntza-eskabideari ez bazaizkio deialdian galdatutako nahitaezko agiriak eranstean, hamar eguneko epea emango zaie eskatzaileei falta zaizkien agiriak aurkezteko —Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua—, eta halaber ohartaraziko hala egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat joko dela.

16. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legea Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Araudia, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 15ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI JÁUREGUI

I. eranskina: Laguntza-eskabidea eta erantzukizunpeko adierazpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/15/04/91504.pdf>